# EVA FOREST gurekin



## BERRIRO BORROKA IXILERA

"Laguna, bizi izan ez duen inork ezin lezake jakin zer den hura". Inoiz ezingo dut adierazi han bizi eta sentitu izan dudana eta, hala ere, bizi guztirako markatu nau".

Yeserias-eko espetxean idatzitako "Testimonios de lucha y resistencia" liburuaren zati bat da. Eva Forestek eta bere espetxekideak eginiko liburua. Jasan zituzten oinaze, bortxakeri, sufrimendu, min eta irain... zenbait irain, bildu dituzte bertan. Gure artean egona da egile hoietariko bat. Euskal Herriak nahiko ezagutzen duena, eta maite ere, bere solidaritate guztia eman bait dio.

*Eva Forest, hainbeste aipatutako gure Eva, nahiko nazkatuta dago ia nahi gabe diogun mito figurarekin. Beldurra ematen dio horrek jarraitzeak.* "Herriak mitifikatu egin du politik presoa. Heroe bihurtu du. Bidezkoa da. Izengabeko borrokalaria da, erortzen da, etsaiak herritik urruntzen du eta terrorista, basati, gaizto bihurtzen du. Etsaiak mito negatiboa sortu du. Bidezkoa da herriak erantzuna ematea: borrokalari kidea etsaiak bahiturik gertatzen bada, herria berari erreskatatzen saiatzen da. Bere borroka bidezkoa eta ez da dudarik irabaziko dutenik. Presoa erreskatatzen duen momentuan, berriro borrokara moldatuta jarraitzen du. Herrian kontzientzia hori baldinbadago, bere borrokalari bat erortzen den momentuan prozeso berdina gertatzen da. Orain, garbi gelditu behar dena zera da: preso gertatu denak adina merezi lezakeela erori ez denak".

*Baino, preso gertatzen dena, nahitaez oso ezaguna egiten da, bai herriarentzat eta baita etsaiarentzat ere.* "Noski, ezaguna denez gero, bere borroka beste molde batzutara mugatuko du. Beharrezkoa dena zera da, egoera guztiak iraultzaren aldekoak bihurtzea. Inor ez da heroe. Heroeak herriak dira. Herriok indibiduoz osaturik daude, baina azken garaipena herriak berak lortzen du. Liderren problema diferentea da. Liderrak herriak eginak dira, eta ez etsaiak".

*Erori zinenean zenbaiterainoko itxaropena sentitzen zenuen kalera irteteko?* "Egia esan, lehen momentuan hil egingo nindutela pentsatzen nuen. Baino segurtasun osoa neukan hau ez bazen gertatzen juiziorik gabe aterako nintzela. Normalki, herriak aterako ninduela pentsatzen nuen, nahiez eta sekula ez sinetsi hain borroka direktoa eramango zuenik, baizik beste borroka molde batzu erabiliz zenbait bide aukeratuko zuela. Sekula ez nuen pentsatu borroka hau hain garbia eta garrantzitsua izango zenik".

## Gobernua eta Amnistia

*Herriak amnistia eskatzen du. Baino presoak kaleratzea lortu du bakarrik.* "Gobernu honek ezin du amnistiarik eman. Presoak kalera besterik ez dezake egin. Amnistia herriari garbi partizipatzen utziko dion gobernuak bakarrik eman dezake. Aldaketa sakona izan behar da. Gobernuak ez digu beldurrik izan barruan geunden presoei, ez eta atzerrian daudenei, eta nahiz eta askok hola pentsa, faszismoak ere ez du ikaratu. Benetan ikara eman diona herriaren indarra ezagutzea izan da. Herriak baturik lortu dezakenaren beldur da gobernua. Amnistia eman balu, gobernuak bere eriotz sententzia firmatuko zuen".

*Gobernuak bere defentsarako harma guztiak erabiltzen ditu. Presoak ezagutzen dituzute gogorrenetarikoak*"la nekatuta nago komisarietan gertatzen diren gauzei buruz hitzegiten. Kanpoko jendeari askotan iruditzen zaio martir gisan jartzen garela, eta ez da hori. Askotan, torturari buruz mintzatzea eta Hirugarren Munduko gosea aippatzea berdina gertatzen da. Eta benetan nahi duguna, gure lan guztiarekin, herria gertatzen ari denaz jabetzea eta gai haietara hurbiltzea da. "Cartas a mis hijos" eta "Testimonios de lucha y resistencia" hildo hortan eginiko lanak dira".

*Oso liburu diferenteak dira, baina gai berdintsuak dituzte. Benetan ikusten dena pertsona marginatu nahien dabilen gizarte baten beldurra da.* "Espetxeetara marginaturik dagoen pertsona eramaten dute. Gizarteak maite ez dituenak, bai politik hildotik abiatzen direlako, edota sozial arloan rebeldeak direlako. Gaitzaren sustraia bilatu behar da: gizartea. Askoz aberasgarriagoa da espetxea barrua, kalea bezala, mundu guztiarekin egoteko posibilitatea baldin baduzu. Gauen zentzua aldatu egiten da. Terrorista delinkuente binomioa hautsi egiten da, zeren eta gure artean elkar ezagutzea lortzen dugu, eta etsairen gezurretaz konturatzen gara. Biktimak denok gara: benetan lapurrak eta hiltzaileak direnak ez dira sekula barruan egoten, bakarrik gizartearekiko rebelde haundienak direnak. "Común deritzen presoarekiko errepresia askoz haudiagoa da, zeren eta defentsa guttiago du".

## Preso politikoen estatua

*Duela urte batzu "estatuto del preso político"ren alde asko borrokatu zen. Azken denbora honetan inork ez du reibindikatzen.*"Neretzat ez da berria preso politikoen estatutua baztertzea. Sekula ez naiz egon horren alde, eta espetxeen barruan egoteak egiaztatu egin dit iritzi hura. Lehen ere egona nintzen 1962eko As-

